

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

143. zenbakia**Data 2002-08-01****13920 orria**

7 UDAL ADMINISTRAZIOA**OLABERRIAKO UDALA****Bertan behera utzitako ibilgailuen udal ordenantza. Behin betiko onespena.**

Iragarkia

Arauzko informazio publikorako epea inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu gabe igaro denez, behi betiko bihurtu da Udalbatzak 2002ko maiatzaren 2an «Ibilgailu Abandonatuei buruzko Udal Ordenantza»ren inguruan hartutako hasierako erabakia.

Beraz, eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikulua dioenaren arabera, erreglamendu horren testu osoa argitaratzen da, zeina hitzez hitz dioen:

IBILGAILU ABANDONATUEI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

Udalerrian aspaldidanik hainbat ibilgailu abandonu egoeran daudenez, Ordenantza honen helburua da hauen egoera arautzea eta etorkizunean horrelakorik ez gertatzeko neurriak hartzea.

1. artikulua.Eskuduntza.

Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 b) artikulua eta Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasuna arautzen dituen martxoaren 2ko 339/90 Errege Dekretu Legegileak udalerriari trafiko eta zirkulazio arloan ematen dioten eskuduntzaren ondorioz onartzen da.

2. artikulua.Arautzearen objetua.

Ordenantza honek bide publikoan abandonaturik dauden ibilgailuen erretiratze eta gordailapena arautuko ditu.

3. artikulua.Aplikazio eremu lurraldetarra.

Ordenantza hau Olaberriko bide publiko guztiei aplikagarri izango zaie.

*4. artikulua.Bide publikoan abandonatutako ibilgailuak.**4.1. Ibilgailua abandonaturik dagoela uste izango da:*

—Bide publikoko leku berean 30 egun baino gehiago aparkatutako dagoenean.

—Kanpoko ezaugarriek abandonatuta dagoela edo bere kabuz mugitzeko gauza ez dela pentsarazten dutenean.

4.2. Abandonu egoeran dagoen ibilgailuak zirkulazioan edo zerbitzu publiko baten funtzionamenduan arrisku edo enbarazu larria eragiten badu, berehala erretiratuko da dagoen lekutik. Bestelako kasuetan, hau da, arrisku edo enbarazu larririk ez dagoenean, honela jokatuko da:

a)Egoeraren berri emango zaio Ibilgailuen Erregistroan haren titular gisa agertzen den pertsonari edo haren legezko jabeari, eta hamar eguneko epea emango zaio ibilgailuaren kargu egin eta abandonu egoera aldatu dezan.

b)Hamar egunak igaro eta ibilgailuak abandonu egoeran jarraitzen badu, Udal Agintaritzak berau erretiratuko du, sortutako gastuak titularrari egotziz.

c)Abandonaturiko ibilgailuaren jabea nor den jakitea ezinezkoa denean, ibilgailuaren abandonu egoera Udaletxeko Iragarri Taulan iragarriko da ediktu bidez, eta balizko jabeari hamar eguneko epea emango zaio ibilgailua erretira dezan.

5. artikulua.Titularrak uko egitea.

Titularrek ibilgailuari espreski uko egingo baliote Udal Administrazioaren alde, honek ibilgailua egoki deritzon moduan erabili ahal izango du.

6. artikulua.Titularraren titulartasuna.

Abandonatutako ibilgailuak besterentzeko prozedurak ez du aldatuko abandonatuta uzteagatik edota aipatutako titulartasun harengatik sortutako aurretiko obligazioengatik haien titularrek duten erantzukizuna.

Olaberria, 2002ko uztailaren 22a.—Txomin Mendoza Perez, Alkatea.

(569) (8349)